

## Mirene Begiristain Zubillaga

EHUko irakaslea. Ekonomialaria eta agroekologiako ikertzailea



Nekazaritzako elikagaien ESEPEak nekazaritzako elikagaien kate osoa garatzea eta, horretarako, prozesuak digitalizatu eta ezagutza eta berrikuntza txertatzea du helburu. Xede orokor horretaz gain, hiru helburu estrategiko proposatzen ditu: 1) lehiakortasuna, 2) jasangarritasuna eta 3) trazabilitatea eta segurtasuna. Zeharkako laugarren helburua erronka demografikoa deiturikoa da. 2022ko otsailean onetsitako ESEPEak 1.002,91 milioi euroko inbertsio publikoa jaso zuen, *hiru jarduera-ildotan banatuta*: 1) Nekazaritzako elikagaien sektorearen industria indartzeko 400 M €, eta prozesuak automatizatzeko eta digitalizatzeko izango da (datuak, logistika, makineria modernizatzea, material berriztagarriekin ordeztzea...); 2) Nekazaritzako elikagaien sektorea digitalizatzeko 454,35 M €, eta bertan Kit Digitala izenekoa da nabarmentzekoa

(guztizko finantziazioaren % 27 dagokio); eta 3) Nekazaritzako elikagaien arloko ikerkuntza 148,56 M €, Nekazaritzako Elikagaien I+G+B eta Itsas Zientzietako I+G+B programetarako.

ESEPE honen arduradunak dira Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, Ekonomia eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa. ESEPEa garatzeko gobernantza-ereduak bi maila ditu; alde batetik, ministerio artekoa, eta, bestetik, lankidetzeta publiko-pribatuak (LPP).

Helburuak, datuak eta exekuzio-bideak ikuspegi ekofeminista batetik aztertuta, sei elementu nagusi azpimarratu behar dira: 1) Ekoizpen-eredu produktibistan sakontzen da —zeina teknologien eta materialen mende baitago—, elikagaien ekoizpen-ereduaren muga ekosozialak eta haren eraginak eta inplikazioak zalantzan jarri gabe; 2) Elikagaien industria digital eta robotizatua erantzeko finantziazioa da, eta ez nekazaritza- eta elikadura-sektore jasangarriago eta erresilienteagoarako;



# “Nekazaritza eta elikadura jasangarrirako beste atzerapauso bat”

3) Nekazaririk gabeko nekazaritza bilatzen da, 4.0 nekazaritzarekin: blockchain teknologia, gauzen Interneta, adimen artifiziala, doitasunezko nekazaritza eta abeltzaintza. Ildo honek Euskal Herrian dagoeneko ikusten ditugun hainbat megaproiektu agroindustrial eta azpiegitura digitalizaturekin bat egiten du, eta sustatu egiten ditu; 4) Narratibak krisi sistemikoa negozio-aukerekin eta aukera-berdintasuneko mezu batekin lotzen du; eta sinistarazi nahi du hazkundera bateragarria dela klima-aldaketaren aurkako borrokaekin, energiaren eta materialen kudeaketa jasangarriarekin, erronka demografikoarekin edo belaunaldi-erleboarekin, bai eta gazteentzat eta emakumeentzat kalitatezko enplegua sortzearekin ere, besteak beste. 5) Gobernantza-ereduak zaildu egiten du gardentasuna, parte-hartzea eta kontrol-mekanismoak egotea, eta baztertu egiten ditu aliantza publiko-publikoak edota publiko-komunitarioak; eta 6) Elikagaien kontsumoa eta lurraldea errotik deslotzen ditu.

Ikuspegi ekofeminista batetik premiazkoa da eztabaidaren gakoak azaltzea. Izan ere, sakoneko arazoei heltzeko, ezinbestekoa da prozesu sozio-ekonomikoak birkokatzea, horretarako elikadura-sistema birlokalizatuz eta merkaturatze-kateak laburtuz. Proposamen publikoak planetaren mugetara egokitu eta funtsezko lanak eta beharrak berrantolatzeke garaia da, nekazarien lana eta elikaduraren balioa handitzeko, eta ekoizpen- eta elikadura-eredu kaltegarriak eta beharrezkoak ez direnak murrizteko. Gako horietatik abiatuta, transizio ekofeministek bide emankorra dute egiteko; baina nekazaritzako elikagaien ESEPEa beste atzerapauso ilun bat da nekazaritzarako eta, oro har, elikadura-sistema jasangarri eta osasuntsu bat demokratizatzeke eta elkar zaintzeke bidean. ●